

2026ko otsaila



Ez dira sinonimoak

Antzekoak diruditen hitzak baliokidetzat hartzen ditugu usu, baina ez dute beti esanahai bera. Hizkuntzaren erabilera zainduan, ñabardura horiek kontuan hartzea funtsezkoa da, mezua zehaztasunez emateko. Fitxa honetan, eguneroko erabileran nahastu ohi diren zenbait hitz-bikote bildu ditugu, bakoitzaren esanahia eta funtzioa argitzeko asmoz. Adibide laburren bidez, bereizketa horiek hobeto ulertzen lagundu nahi dugu. Helburua da euskararen erabilera aberatsagoa eta zuzenagoa sustatzea.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

AITORTU ≠ ONARTU

Ez dira erabat sinonimoak. *Aitorturen* 'zerbait hala dela onartu; zerbait edo norbait halakotzat ezagutu' **adieran, bai**; bestela, ez.

Adibide hauetan **sinonimoak** dira:

- Azkenean *aitortu/onartu* zidan arrazoia nuela.
- Bakoitzari zor zaiona *aitortu/onartu* behar zaio.

Beste hauetan, **ez**:

- Egia *onartu* zuen: bera izan zela gutunaren igorlea. ***
- Egia *aitortu* zuen: bera izan zela gutunaren igorlea.
- Bere asmoa *onartu* behar izan zion. ***
- Bere asmoa *aitortu* behar izan zion.

AMESTU ≠ AMETS EGIN

Sinonimoak dira 'zerbait biziki desiratzea' adieran; alegia, desiratzen den hori maiz irudikatzea.

Irrikatu dute sinonimo, adiera horretan:

- Hau ez da guk *amestutako* bizitza.
- Umeak hainbeste aldiz *amets egin* duen eguna.

Amets egin-ek, **ordea**, badu *amestu*-k ez duen adiera bat: lotan, irudimenak, gertaerak edo irudiak sortzea; *ametsetan egitea*.

- Amildegi batetik erortzen nintzela *amestu* dut bart. ***
- Amildegi batetik erortzen nintzela *amets egin* dut bart.

ANTZEMAN ≠ ATZEMAN

Ez dira sinonimoak. Bakoitzak esanahi-esparrua ongi definitua du.

Antzeman aditzak (du/dio) hauek ditu sinonimo: *igarri, nabaritu, konturatu, zerbaitez ohartu/jabetu, asmatu, ezagutu*.

- Probatu gabe ezin ona den *antzeman*.
- COVID-19aren ostean egoera nabarmen okertu dela *antzeman* du.

Atzeman (du) aditzak, berriz, beste hauek ditu sinonimo: *harrapatu, aurkitu, atxilotu, atzitu*.

- *Atzeman* dute lapurra.
- Arrainak amuz *atzeman*.

AURKITU ≠ BILATU

Ez dira sinonimoak. Ohitura nagusiaren arabera, bata (bilatu) bestea (aurkitu (= topatu)) lortzeko ahalegina da.

Bilatu: zerbait lortzeko ahalegina egin.

Aurkitu: bilatutako hori topatu.

- **Aurkitu** dut galdu zaidan ardia. Ez du bakerik **aurkitzen**.
- **Bilatu** du, baina ez du **aurkitu**.
- Onddoak **bilatzera** joan gara mendira; lau onddo eder **aurkitu** ditugu

DATA/FETXA ≠ EGUN

Ez dira sinonimoak; beraz, ezin da erabili *data* hitza (es) 'fecha' eta (fr) 'date' hitzen testuinguru guztietan.

Data: urtearen, hilaren eta egunaren adierazpen zehatza da.

- Gutunaren bidaltze-**data** abenduaren 15a da.
- **Datarik** gabe dator dokumentua.

Ez da egokia testuinguru horretatik aparte:

- Ertzaintza Bilboko egoitzara sartu zen **data** hartan, abuztuaren 27an. ***
- Ertzaintza Bilboko egoitzara sartu zen **egun** hartan, abuztuaren 27an.
- Iraila, urria edo azaroa izan daite(z)ke **data** egokia(k). ***
- Iraila, urria edo azaroa izan daite(z)ke **sasoi/garai** egokia(k).

GOIZ ≠ GOIZALDE

Ez dira sinonimoak.

Goizalde: Egunsenti inguruko orduak; gauerditik egunsenti arteko orduak dira.

- **Goizalde** lainotsu batean.
- **Goizaldean** argitzen duen izarra.

Goiz: Egunsentitik eguerdi arteko denbora-bitartea da.

- **Goiz**, eguerdi eta arrats.
- **Goiz** guztiek dute beren arratsaldea.
- **Goizaldea** lanean eman dute haurrek eskolan. ***
- **Goiza / Goiz partea** lanean eman dute haurrek eskolan.

HARREZKERO ≠ HONEZKERO

Ez dira sinonimoak.

Harrezkero: 'Aipatu den une edo denboraz gero'. Sinonimoak ditu *orduz gero*, *ordu ezker*, *ordutik*.

- Gure gizona plaza-gizon egin zaigu, eta **harrezkero** bakea zer den ez dakigu.
- Maitearen oroitzapenak alaitu omen zion **harrezkero** bizia.

Honezkero: 'Hitz egiten den unerako' (Dagokion aditzak adierazten duena gertatu uste dela jakinarazten du).

- Goazen arin, **honezkero** estropada hasiko zen eta.
- Gure Antonek ere, **honezkero**, hirurogeita bosten bat izango ditu. Honezkero hurrean behar luke.

URTEBETETZE ≠ URTEURREN

Ez dira erabat sinonimoak.

Urtebetetze hitza, oro har, 'norbaiten jaiotegunaren urtemuga edo urteurrena' adierazteko erabiltzen da; bera da urteurren-motarik arruntena.

- Martaren **urtebetetzea** ospatzeko.
- **Urtebetetze-eguna**.

Urteurren, berriz, zerbaiten urtemuga, zerbait (gertaera edo) gogoangarri baten urteak betetzen direla adierazteko erabiltzen da.

- Hamargarren **urteurrena**.
- Frankismoaren 50. **urteurrena**.



Ohiko erdarakadak

✗ **Behin irizpideak finkatu ditugula, horiek aplikatzen hasteko unea izango da.**

✓ **Behin irizpideak finkatu ditugunean, horiek aplikatzen hasteko unea izango da.**

✗ **Behin aurkezpena egin duzula, has zaitez mamia azaltzen.**

✓ **Behin aurkezpena eginez gero, has zaitez mamia azaltzen.**

✗ **Behin etxeko lanak egin dituzula, kalera atera ahal izango zara.**

✓ **Behin etxeko lanak eginda, kalera atera ahal izango zara.**



behin... -ela

Esapide hori erabiltzen dugu perpaus nagusiko gertakaria mendekoarena baino geroago gertatzen dela adierazteko. Egitura horretan, ordea, ez da **-ela** menderagailua erabili behar; gaztelaniazko **“una vez que”** esapidearen kalko okerra da.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



ZARBIDEA MOZTUTA ≠ BIDEA ITXITA

Zain dezagun euskara!